

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 27an hartutako erabakiaren laburpena: Euskararen Erabilera Planaren dirulaguntza, haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpenik hoberenak, 2025eko lege gordailua dutenak, saritzeko Vitoria-Gasteiz sarietarako deialdia

BDNS(Identif.): 891883.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/891883>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke

Lehena. Onuradunak

Haur eta gazte literaturaren alorreko lanen itzultzaileak, edozein hizkuntzatatik euskarara egindako itzulpen lanekin (2025 urteko lege gordailua dutenak). 2026ko deialdi honetara ezingo dira sail bereko lehiaketara aurkeztu 2024 edo 2025ean sail horretan sarituak izan ziren itzultzaileak. Ez da onartuko enpresek egindako itzulpen-lanik.

Bigarrena. Helburua

2025 urteko lege gordailua izan eta haur eta gazte literaturaren alorrean euskaraz argitaratutako itzulpenik hoberenak saritzeko emango diren Vitoria-Gasteiz Sariak. Euskarara egindako itzulpenik hoberenen egileen lana saritu nahi da, literatura generoa edozein izanda ere.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 18.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 lan egun, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 27a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko Zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIÉRREZ